

BEUSKARAREN BERRIPAPER A

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

Kirola euskalduntzeko proposamena aztertzen ari dira herri erakundeak

Kirolak jende asko mugiarazten du, kirolariez gain: zuzendariak, entrenatzaileak, gurasoak, ikusleak... Erakarmen handia du gainera, munduko telebista eta irrati ia guztietan: udako eta neguko Joko Olinpikoek, Munduko Futbol Txapelketak, Frantziako Tourrak eta Eskuz Banakako Pilota Txapelketaren finalak, esate baterako, sekulako audientziak lortzen dituzte. Gure artean kirola eta jolasa gaztelaniaren eskutik doaz nagusiki, komunikabideetan eta eguneroko jardunetan, baita herri euskaldun askotan ere. Zenbait herritan lanean ari dira dagoeneko kirola eta euskara



uztartu guran. Kezka beste maila batzuetara hedatu da. Eusko Jaurlaritza, Euskal Autonomi Elkarteko foru aldundiak eta beste zenbait herri erakunde aztertzen ari dira EUDELetik, Euskal Udalen Elkartetik, jaso duten proposamena.

Egoeraren azterketa

Eztabaidarako egin den txostenak dioenez, orain artean inork ez du landu kirol federazioak euskalduntzeko hizkuntza plangintzarik. Euskararen erabilera kirol munduan, bai federazioetan eta baita herri mailan ere, ia testimoniala dela aitortu eta gero, hainbat bide aurreratzen ditu kirolaren mundua euskaldunduz joateko.

Proposamenak

Proposamenak hiru ardatz ditu:

- Kirol federazioak. Monitore euskaldunak prestatzea hobesten du, hauek izango baitira gero kirola irakatsiko dutenak, kirol federazioen barne eta kanpo produkzioa euskalduntzea, euskararen erabilera ziurtatzea kirol jardunetan eta federazioen argitalpenetan euskarari dagokion lekua egitea.
- Herrietako kirol taldeak. Txostenak multzo honi aitortzen dio garrantzirik handiena, jende multzorik handiena hemen ibili ohi delako. Hemen ere monitoreak prestatzeari eta euskarari beste jardunetan tokia egiteari ematen zaie garrantzia.
- Herri erakundeak. Udalek, foru aldundiek eta

Eusko Jaurlaritzak, bakoitzak bere mailan, egiteko handia lukete horrelako plangintza batean. Txostenak garbi uzten du euskararen erabilera bermatzeko kirol jardueretan, adostasunean oinarritutako araudia sortu eta bete beharra dagoela. Herri erakundeak hausnartzen ari dira proposamena. Ondoren, egoera aldatzeko neurriak, proposatutakoak edo beste batzuk, aterako lirateke.



Xede nagusienetakoa: entrenatzaileak euskalduntzea.

Maria Luisa Irizar, txapeldunaren itzulera

Maria Luisa Irizar, 30, korrikalari andoaindarra itzuli egin da atletismora. Bazirudien Bartzelonako

Joko Olinpikoetara joan ez izanak betirako aldenduko zuela atletismotik - "izan ere, etsipenik handienak Seulera eta Bartzelonara joateko deitu ez zidatenean hartu nituen"-, baina iazko osasun arazoak gainditu eta gero, euskal atletismoak eman duen emakume korrikalaririk onenetarikoa lehian dugu berriro ere.

Hamabost urterekin hasi zen korrika, eskolako lagunek bultzatuta. Aita ere korrikan ibilitakoa zen eta familian sekulako zaletasuna zuten. Luze baino lehen, emakumerik onena bilakatu zen. Espainiako zazpi titulu eskuratu zituen: bat 10km.etan, lau

20km.etan eta bi maratoian. Errekorrak ere ugari egin zituen gara hartan.



Maria Luisa Irizar

Orain bi urte Aiara ezkondu zen eta hantxe bizi da. Unerik latzenetan ere herritarren eta zaletuen laguntza eta txaloa izan ditu. Horiei esker itzuli da. Egunean birritan entrenatzen da: goizean hiru ordu laurdenez eta arratsaldean ordubetez. Aurtengo helburuak garbi dauzka: pistan hasi eta Euskadiko 5km. eta 10km. etako markak hautsi,

Espainiako 20km. etako txapelketa irabazi eta Donostiako maratoian eskuhartu. Erretiroa ez du urruti ikusten, ordea. Aurten ondo ibiliko balitz beste urtebetez ere korritzeko prest legoke. Bestela hauxe izango litzateke bere azken denboraldia atletismo munduan.

Jardunaldiak

Bi jardunaldi hauek azpimarratuko ditugu apirilera:

- Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko hizkuntzei eta literaturei buruzko VII. Jardunaldiak. Madrilgo UNEDek eta Unibertsitate Complutensek antolatu dituzte Espainiako Kultura Ministeritza, Kataluniako Generalitat, Galiziako Xunta eta HPINen laguntzarekin. Apirilaren 21ean eta 22an izango dira, Madrilen. Hizlari euskaldunak: Xabier Mendiguren, Pello Esnal eta Eugenio Arozena.

- IV. Jardunaldi Medikoak. Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak eratu, Donostiako Miramar jauregian izango dira, apirilaren 22an eta 23an. Gaia: Aurrerapen terapeutikoak. Bi egunetan zehar hitzaldi, komunikazio eta mahainguru mordoak izango da. Eta OEEren urteroko bilera ere egingo dute.

Filosofiako testuak
UBIrako. Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamentuak argitaratu du liburu hau. Platon, Aristoteles, Hume, Kant, Marx, Nietzsche, Popper, Horkheimer, Sartre eta Foucault filosofoen testuak dakartza euskaraz. Testu hauek ezinbestekoak dira unibertsitatara sartzeko frogak gainditu ahal izateko.

Hiru kirol-hiztegi. Soin Hezkuntzarako Euskal Erakundeak eta UZEIk pilota, atletismo eta futbolari buruzko hiztegiak prestatu dituzte. Hiztegi hauek UZEIk orain urte batzuk ateratako Kirokide eta Futbola hiztegieta oinarritzen dira, baina gaurkotuak eta definizioekin batera datoz. Hitzen baliokideak lau hizkuntzatan ematen dira: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. Laster kaleratuko dira.

Gasteizko haurrak udan ere euskaraz. Gasteiz euskalduna elkarteak trukeak prestatu ditu B eta D ereduatan ikasten diharduten 125 haur gasteiztarrentzat. Uztailean eta abuztuan zehar neska-mutiko gasteiztarrak Nafarroako eta Gipuzkoako familia euskaldunetan biziko dira, gutxienez astebetez. Trukean, haur nafarrek eta gipuzkoarrek beste horrenbeste egingo lukete Gasteizen.

"Orioko gazteak eta euskara" kanpainaren barruan, Orioko Udalak izen bereko bideoa egin eta kaleratu zuen. Helburua: euskararen erabilera indartzea gazteen artean. Dokumental gisa egina, euskarak Orion izan duen bilakaera erakusten du. Oriotarrak izan dira protagonista nagusiak. 400 kopia atera ziren eta oso harrera ona izan du herritarren artean. Dagoeneko 300 pasatxo saldu dira

Deba bailaran kirola ere euskaraz

1993an Deba Garaiko zenbait udal (Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Eskoriatza eta Oñati) helburu batekin elkartu ziren: kirol arloan euskararen normalizazioa bultzatzeko. Horrela jaio zen Kirola euskaraz proiektua.

Eman zituzten lehen pausoak izan ziren: bailarako herrietan egiten ziren kirolen berri zehatza jaso eta kirol arloko euskarazko materialen bilketa. Bi ondorio atera zituzten: Deba Garaian entrenatzaile euskaldunen beharra zutela eta oso material gutxi zegoela euskaraz kirol arloan. Bi ondorio horietan oinarrituta prestatu zuten 1993ko plangintza.

1993ko egitasmoa

- Bi ikastaro euskaraz antolatu zituzten, lanean iharduten entrenatzaileen prestakuntza hobetzeko eta entrenatzaile berriak sortzeko asmoz. Bata txirrindularitzako zuzendariak prestatzeko eta bestea eskola kiroleko entrenatzaileak hezitzeko. Lehenean 21 lagunek eskuhartu zuten, bigarrean 22k.

- Kirol materialak sortzeko beka, SHEE/IVEFeko Iñaki Frierak 300.000pta.koa irabazi zuen L'entraîneur de football liburua euskaratzeko.

1994rako asmoak

- Plangintza Deba Behera (Eibar, Elgoibar, Deba...) zabaltzea. Asmoa Deba Garaiko eta Deba Beheko udal guztiak sartzea izango litzateke. Udal bakoitzak 14 pta. ordainduko lituzke biztanleko.

- Proiektuak. Iaz itzulitako liburua argitaratu nahi da, iazkoaren antzeko beka kaleratu, bestelako materiala euskaratu, ikastaroak antolatu eta sortzen den materialaren eta eratzen diren ikastaroen zabalkunde egokia egin.

- Antolaketa berria. Hasierako taldea haziz joango denez, antolaketa eraginkorragoa egin da.

Proiektuaren aurtengo aurrekontua 1.600.000pta.koa da.

Joseba Agirreazkuenaga, 41, irakasle busturiarrak El Mundo egunkariak argitaratzen duen Gran Atlas Histórico del Mundo Vasco lana zuzendu du. Deustuko Unibertsitatean Gaurregungo Historian doktorea, Oxfordeko Unibertsitateko irakasle gonbidatua izan zen. Eusko Ikaskuntzako lehendakariordea, Historia irakasten du EHU-n.

Ekaitz Goikoetxea, 14, Beasaingo Alkartasuna lizeoko ikasleak hiru sari irabazi ditu Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatzen duten Resurrección María Azkue haur eta gazte literatur sarietan.

Iñaki Goitia, 34, irakasle santurtziarra Madrilén euskaraz eta euskal literaturaz egingo diren jardunaldien antolatzaileetako bat da. Filosofia eta Letretan lizentziatua, euskara irakasten du Madrilgo Hizkuntza Eskolan eta Unibertsitate Complutensén.

Argitalpenak

Europako Karta

Interbask, S.A. erakundeak Europako Kontseiluko Ministroen batzordeak 1992an onartu zuen Eskualde mailako edo gutxiengo hizkuntzen Europako karta argitaratu du euskara eta gaztelaniaz. Kartan hizkuntza horiek ofizialtzat hartzea eskatzen zaie estatuei, eta baita hizkuntza horien aldeko neurriak hartzea ere. Eskuratu nahi duenak Interbasken Gasteizko bulegoan ditu.

Eskualde Mailako edo
Gutxiengo Hizkuntzen
Europako Karta

INTERBASK, S.A.



EUSKARAREN BERRIPAPERA zure etxean doan jaso nahi baduzu edo ezagunen bati bidaltzea nahi, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako
Idazkaritza Nagusia
Wellingtono Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelera

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

Galdezka.....

Hizkuntza helburuak

G. Ipar Euskal Herriko Euskal Kultur Erakundea

E. Zeintzuk dira a hezkuntza alorreko hizkuntza helburuak?

Neska-mutil N euskaldunek gazteleraz ondo jakitea nahi dugu; ez dadila gerta gara batean bezala, herri txikitako gurasoek gaztelera hutsean hezitzen zituztela beren umeak, beraiek jasan behar izan zituzten bazterkeria eta eragozpen sozialak eta profesionalak paira ez zituzten. Helburu hori betebete ari gara erdiesten.

Bestetik, gaztelaniazko hiztunek euskaraz ere jakitea nahi dugu, bi hizkuntzetan komunikatzeko gauza izan daitezten. Bigarren helburu honetarako gogor aritu beharko dugu lanean, aurrerapausoak nabariak badira ere. Belaunaldi berriak euskararen, gaztelararen eta, jakina, hirugarren hizkuntza baten jabe izatea nahi dugu... Guk proposatzen duguna ez al da ba, benetakoz zozter Europako iparraldeko zenbait herritan?

M. Karmen Garmendia.

Hizkuntza Politikarako
idazkari nagusia

Ipar Euskal Herriko kultur Erakundea

Laster lau urte beteko ditu Euskal Kultur Erakundeak. Ipar Euskal Herriko kultura beharrei erantzun egokia emateko sortu zen. Uztaritzen du egoitza, Lapurdiko hiriburu historikoan.

Lanaren eta ekinaren poderioz geroz eta sendoago azaltzen da gaur egun. Txomin Heguy eta Daniel Landarten zuzendaritzapean bi lagun ari dira lanean egun osoz.

Helburuak eta aurrekontua

Euskara eta euskal kultura bultzatzea du xede nagusi. Bere lana Lapurdira, Nafarroa Beherera eta Zuberoara zabaltzen da. Aipatutako lurraldeak osatzen dituzten 158 herrietatik 133k laguntzen diote EKeri. Baita 65 euskal elkartek ere. Jende eta ikuspegi desberdin asko ordezkatzeko dituzte, beraz.

Hogei kidek osatzen dute EKeren administrazio kontseilua: 8 aginte publikoak ordezkatzuz,

beste 8 EKeren izenean eta euskal kulturaren munduko 4 pertsonalitate ezagun. 72.500.000pta.ko aurrekontua du.

Egindako lana

- Euskara agerian toponimia eta bide seinaleak biltzen dituen lana egin du Euskaltzaindiarekin batera.
- Xirrixta haur-aldizkaria argitaratzen du 4 eta 8 urte arteko ume euskaldunentzat.
- Iparraldeko euskal artisten katalogoa, ondarearen gidaliburua eta Iparraldeari buruzko bideoa plazaratu ditu.
- Ehundaka kultur jarduera antolatu ditu beste erakunde zenbaitekin elkarlanean. Lan handiena Ipar Euskal Herrian egin badu ere, geroz eta estuagoak dira Hego Euskal Herriko erakundeekin dituen harremanak.

✓ Kontutan hartzeko

• **Expolingua.** Madrilgo ExpoChamartinen izango da, apirilaren 14tik 17ra bitartean. Ohi bezala, Eusko Jaurlaritzaren HPIN eta Nafarroako Gobernuaren HPZN elkarrekin joango dira.

• **Ekin euskarari.** HPINek antolatzen duen erakusketa Gasteizko Villa Suso jauregian apirilaren 14tik 24ra bitartean ikusiko

da. Apirilaren 29tik maiatzaren 8ra bitartean, ostera, Basauriko Ariz dorretxean izango da ikusgai.

• **II. Sketch lehiaketa.** Euskadiko Kutxak gazteentzako antolatutako lehiaketaren sari banaketa Maiatzaren 1ean izango da Bilboko Arriaga Antzokian.

EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA
HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA



GOBIERNO VASCO

SECRETARIA DE LA PRESIDENCIA
SECRETARIA GENERAL DE POLITICA LINGÜÍSTICA

